

Familia album partekatua



Familia-album bateratu bat sortuko dugu erakusketa gisa, gure familia-iraganetik etorritako argazkiak, abestiak eta atzemandako beste ondare-elementu batzuk erabiliz.

Helburuak

- Ione Atenearen obrara eta lan-prozesuetara hurbiltzea.
- Norberaren familia-iraganari buruzko ikerketa egitea eta harekin nahastea sormen-prozesuen bidez.
- Ondare inmateriala aitortzea eta hari balioa ematea, arlo pertsonaletik kolektibora.
- Sortutako materialekin erakusketa bat sortzea.

Aipamenak

Ione Atenearen erakusketa Iruñeko gotorlekuan: <https://www.laguiadepamplona.es/actualidad/ione-atenea-lameiro-presenta-su-primera-exposicion-individual-en-la-ciudadela-un-proyecto-fotografico-sobre-el-desarrollo-de-la-enfermedad-de-alzheimer-de-su-abuelo/>

Ione Atenearen 24_07 bideoa (Pasahitza: 2407): <https://vimeo.com/178193524>

Álbum familiar (o cómo nos desnudamos ante otros) - Jaque al arte: <https://jaquealarte.com/album-familiar-o-como-nos-desnudamos-ante-otros/>

Jodorowsky y la fuerza del árbol genealógico - Casa de América: https://www.youtube.com/watch?v=kv7b4bW1cMo&feature=emb_title

El álbum familiar como formato artístico - El País: https://elpais.com/cultura/2013/01/17/actualidad/1358448041_407260.html

Proposamenaren garapena

Aurkezpena

1. Ione Atenearen 24_07 obra ikusi eta aztertzen dugu:

- Zer da ikus-entzunezko pieza hau?
- Zer elementu erabiltzen ditu bere aitona aurkezteko? Eta denboraren joana irudikatzeko? Nola irudikatzen da gaixotasuna? Eta heriotza?

2. Heriotza, galera, denboraren igarotzea adieraz dezaketen elementuekin zerrenda bat egiten dugu. Koloreak, zapoak, soinuak, irudiak, sinboloak eta abar.

3. Zer motatako elementuak geratzen dira maite dugun pertsona bat galdu ondoren? Hura gogoratzen laguntzen digutenak (materialak edo inmaterialak).

Esperimentazioa / Sorkuntza / Ikerketa

1. Familiaren laguntzarekin, zuhaitz genealogiko bat egiten dugu, gugandik hasi eta gure birraitona-amonetaraino. Ezagutzen ez dugun edo gutxi gogoratzen dugun pertsona bat aukeratu, eta ikertzen dugu:

- Haren ohiko esaldi edo abestia (gogora ekartzen diguna).
- Hura definitzen lagunduko duen leku bat edo jantzeko jantzi/osagarri bat.
- Gure antzeko ezaugarri fisiko edo nortasun-ezaugarri bat.

Informazioa jasotzen dugu (marraskia, idazketa, argazkiak edo objektuak).

2. Lau pertsonako taldeetan zuhaitz genealogikoak eta ikertutako pertsonari buruzko informazioa komunean jarri eta partekatzen dugu.

3. Lau pertsonako talde horietan, bildutako esaldi eta abestietatik abiatuta, soinu-piezak sortzen ditugu. Errepikapenarekin joka dezakegu, erritmoa, melodia, bolumena... Audioak entseatu eta grabatzen ditugu.

4. Banaka:

- Ikertutako pertsonaren erretratuen fotokopietan parte hartzen dugu marrazkiaren, collagearen, pinturaren eta/edo idazketaren bidez, senide horrekin lotzen gaituzten ezaugarri fisikoak edo nortasun-ezaugarriak agerian uzteko.

- Gure gorputzean esku hartzen dugu edo beste era batera erabili, eta argazkiak ateratzen ditugu: gure azalean esaldiren bat idatzi, pertsonaren gorputz-jarrera tipikoak hartu, haren jantziren batekin ikusi, eta abar.

5. Ikerketetan sortutako materialarekin, gogoetekin, soinu-piezekin eta atzemandako erretratuekin erakusketa bat sortzen dugu, familia-album bateratu gisa. Honako adibideak izan daitezke:

- Soinu-instalazioa, non audio-piezek sortutako beste elementu batzuekin erlazionatzen diren.

- Irudien murala; non argazkiak, marrazkiak eta zerrendak zabaldu daitezkeen.

- Objektuak/irudiak/testuen instalazioa, non hainbat elementu espazioarekin erlazionatzen diren. Kontuan hartzen dugu:

Instalazioan espazioa hainbat modutan erabiltzen dugu: zorua, sabaia, horma, formak sortzea, zintzilikatzea, elementuak mahai baten gainean jartzea, etab. Izenburuak jartzen dizkiogu obra bateratu bakoitzari, eta baita erakusketari ere.

Ondorioak eta lerro irekiak

1. Erakusketaren irekierarako gonbidapenak sortzen ditugu eta senideen artean banatzen ditugu. Kartel iragarle bat egiten dugu eta eskola eremuan jartzen dugu.

2. Erakusketatik bertatik abiatuta nola kontu dezakegu ikus-entzunezko pieza baten bidez proiektuan zehar eraikitzen joan garen familia kontakizunak?